Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko uztailaren 27a, osteguna — 143 — Jueves, a 27 de julio de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HERNANIKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatza Osoak 2017ko uztailaren 18an, Hernaniko Udalaren 2017ko Aurrekontu Orokorra Gauzatzeko Arauaren aldaketa espedienteari aurkeztutako erreklamazioak ezestea, eta aldaketa espedienteari behin betiko onarpena ematea erabaki du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Denek jakin dezaten ematen da argitara, eta jakinarazten da erabaki honek amaiera ematen diola administrazio bideari, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu ahal izango delarik, jurisdikzio horretako arauek finkatzen dituzten era eta epeetan.

Segidan, aldaketaren testu osoa:

*11. artikulua. Udalbatzako kideen ordainsariak eta udal talde politiko bakoitzarentzako diru-kopuruak.*

Udalbatzako kideen ordainsariak eta udal talde politikoen diru-kopuruak, «912.00-Gobernu Organoak» gastu programan jasotako aurrekontu partidetan jasoko dira.

Alkateari eskumena ematen zaio, berariaz erabakitzeko zein kidek beteko dituzten dedikazio osoko karguak, zeinek dedikazio partzialeko karguak, eta aplikatu beharreko soldata mailak, talde politikoen proposamenak kontuan hartuta, eta beti ere aplikagarria den araudia eta honek ezartzen dituen mugak aintzat hartuta.

Hori horrela, aplikaziorako irizpide hauek finkatzen dira:

11.1. Erabateko dedikazioa aitortzen zaie automatikoki alkateari eta, gehienez, Tokiko Gobernu Batzarreko kideen eta eskuordetza duten zinegotzien artean hark izendatutako hiru (3) zinegotziri. Modu honetan ezartzen den liberazio oso eta partzial metatuen muga, lau (4) lanaldi osokoa izango da. Izendapen horien berri Udalbatzari emango zaio, hurrengo osoko bilkuran.

11.2. Beren kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten gobernu taldeko kideei kargua hartu aurretik zuten soldata maila bermatuko zaie, eta gutxienez, honako kopuru hauek (urteko soldata gordina):

— Alkatea: 3.362 € hilero; 47.068 € urteko (erreferentzia, udal lan hitzarmeneko 23. maila).

— Kargua dedikazio osoarekin betetzen duten gobernu taldeko kideak: 2.299,19 € hilero; 32.188,66 € urteko (erreferentzia udal lan hitzarmeneko 13. maila).

Soldata maila hauek urtero egokituko dira Langilegoari aplikatutako igoera indizeen baitan.

11.3. Dedikazio partzialak, proportzioz ordainduko dira dedikazioaren arabera, baina beti ere, gutxienez % 20-ko dedikazioa beharko da ordain saria jaso ahal izateko. Dedikazio partzial honek gehineko muga izango du, udalean nahiz kanpoan

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

*Anuncio*

En sesión plenaria celebrada el 18 de julio de 2017 se ha acordado desestimar las reclamaciones presentadas al acuerdo de modificación de la Norma de Ejecución Presupuestaria de los presupuestos de 2017 del Ayuntamiento de Hernani, y aprobar definitivamente dicha modificación, de conformidad a lo establecido en la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Lo que se publica para general conocimiento en cumplimiento de la normativa vigente, y se hace saber que este acuerdo pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponer contra el mismo Recurso Contencioso-Administrativo en la forma y plazos que establecen las normas de dicha jurisdicción.

A continuación se publica el texto integro de la modificación:

*Artículo 11. Retribuciones de los miembros de la Corporación y dotación económica a los grupos políticos municipales.*

Las retribuciones de los miembros de la corporación y las dotaciones económicas a los grupos políticos municipales, se contabilizarán con cargo a las partidas del programa de gasto «912.00-Organos de gobierno» del Presupuesto del Ayuntamiento:

Se faculta expresamente al Alcalde para el nombramiento de los miembros que han de ocupar los cargos de dedicación exclusiva o parcial, las retribuciones, teniendo en cuenta la propuesta de los distintos grupos políticos, atendiendo a las normas y límites establecidos por la legislación aplicable vigente.

De este modo, se establecen los siguientes criterios de aplicación:

11.1. Se reconoce, de modo automático, la dedicación exclusiva del Alcalde, y de otros tres (3) concejales a designar por el Alcalde, entre los miembros de la Comisión de Gobierno y Delegados de Alcaldía. El computo total acumulado de dedicaciones que se establecen de este modo, tanto completas como parciales, es de cuatro (4). De la anterior designación se dará cuenta al pleno en la siguiente sesión que se celebre.

11.2. Los miembros del equipo de gobierno con dedicación reconocida para el desempeño de sus funciones, se les garantizará una remuneración pareja a la que tuvieren previo al desempeño del cargo, y como mínimo, tendrán las siguientes remuneraciones (sueldo bruto):

— Alcalde: 3.362 € mensual; 47.068 € anual (referencia nivel 23 del convenio regulador municipal).

— Miembros del equipo de gobierno con dedicación exclusiva: 2.299,19 € mensual; 32.188,66 € anual (referencia nivel 13 del convenio regulador municipal).

Estas retribuciones serán actualizadas cada año en función del incremento aplicado al personal.

11.3. Las retribuciones por dedicación parcial lo serán en proporción al tiempo de dedicación asignada, debiendo tener una dedicación mínima del 20 %. Esta dedicación parcial tendrá un límite máximo, ya que la suma de las dedicaciones parciales

EK\CV GAO-I-2017-05327

duten dedikazio partzialen baturak ezingo baitu % 100eko lanaldia gainditu. Udalaz kanpo duten dedikazioa eta soldata, enpresa ziurtagiri bidez kreditatu beharko dira.

11.4. Udal-talde politiko bakoitzari dagokion diru-kopurua: alde batetik kopuru finkoa jasoko dute: 639 euro hileko; eta bestalde, kopuru aldakorra: 197 euro hautetsi bakoitzarengatik.

11.5. Oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi esklusiboa izango du, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko. Edozelan ere, oposizioak duen eskubide hori hauteskunde emaitzen arabera ordezkari kopuru handiena duen alderdi edo koalizioari dagokio, edo, halakorik ez dagoenean, indar politiko bozkatuenari. Boto-berdinketa egonez gero, indar politiko biek txandaka baliatuko dituzte eskubide horiek, agintaldiko epe berdinetan.

11.6. Oposizioko taldean dedikazio esklusiboa duen zinegotziaren lansaria, gobernu taldeko kideei dedikazio esklusiboagatik dagokiena aplikatuko zaio (erreferentzia, udal lan hitzarmeneko 13. maila), % 10eko murrizketarekin.

Hernani, 2017ko uztailaren 19a.—Luis Intxauspe Arozamena, alkatea. (5327)

desempeñadas en el ayuntamiento y fuera de este, no podrá exceder el 100 % de la jornada. Tanto la dedicación como retribuciones extramunicipales deberán ser acreditadas mediante certificado de empresa.

11.4. Dotación económica a cada grupo político municipal: los grupos políticos municipales percibirán una cantidad mensual fija de 639 euros y otra variable, a razón de 197 euros por corporativo.

11.5. Se garantizará que, al menos, exista un concejal o concejala de la oposición con dedicación exclusiva, con el fin de que las funciones de control y fiscalización del gobierno municipal puedan llevarse a cabo de forma efectiva. En todo caso, tales derechos de la oposición corresponderán al partido o coalición más representativa según los resultados electorales, o, en su defecto, a la fuerza más votada. En caso de igualdad de votos, se alternarán en iguales periodos del mandato ambas fuerzas políticas, en el disfrute de tales derechos.

11.6. Al concejal de la oposición con dedicación exclusiva se le aplicará la remuneración mínima aplicada al miembro del equipo de gobierno (referencia nivel 13 convenio regulador municipal) con una reducción del 10 %.

Hernani, a 19 de julio de 2017.—El alcalde, Luis Intxauspe Arozamena. (5327)